

## 6. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA ESKAINTZEKO PROGRAMA

Gizarte Ekintzako Sailak genero indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko zerbitzua du eta honen barruan bai biktimen arretarako bai bortizkeriaren aurkako prebentziorako programa desberdinak garatzen dira.

### INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN ARRETA PROGRAMA

Programa honek **informazioa eta laguntza ematen dizkie genero indarkeriaren biktime izan diren pertsoneri**, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzaren eta beste departamentu edo instituzio batzuen baliabideak erabiltuta. Programaren arduradunek kasu bakoitzaren diagnostikoa egin eta esku-hartze plan bat adosten dute biktimarekin, hainbat bitarteko erabil ditzakeena: laguntza psikologikoa, aholkularitza juridikoa, laguntza ekonomikoa, hezkuntza mailako laguntza, kulturen arteko bitartekaritza eta bizileku baliabideak.

2021an, 214 pertsona berri, hau da, aurretik zerbitzuan artatu gabeak, artatu ziren:

- Indarkeria matxistaren biktimak: 171
- Familia barneko indarkeria: 6
- Sexu indarkeria: 22
- Beste kasu batzuk: 16

Aurten lehen aldiz programara jo duten emakumeen artean tratu txar mota hauek identifikatu dira:

Tratu txar fisikoa	93
Tratu txar psikologikoa	172
Tratu txar ekonomikoa	35

*Oharra: Emakumeek tratu txar mota bat baino gehiago pairatu ohi dutenez, tratu txarren batura handiagoa da laguntza jaso duten emakumeen kopurua baino.*

**2021ean lehen aldiz artatu diren 214 pertsona berri horietaz gain, aurreko urteetatik artatzen ziren beste 272 emakumerekin ere jarraitu dugu lanean.**

**Beraz, guztira, 486 izan dira genero indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko programan artatu diren emakumeak.**

Ondoko taulan, programara jo dutenek emakumeek 2021an jaso dituzten laguntzak eta baliabideak ikus daitezke:

Laguntza psikologikoa	112
Laguntza soziojuridikoa	27
Aholkularitza eta informazioa	214
Larrialdietarako etxebizitzak (udalarenak)	5
GFAREN etxebizitzak – Egonaldi labur, ertain eta luzeko harrera	11
Larrialdiko txekea	13
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza (*)	15

Emakumeei lagun egitea	52
------------------------	----

*(\*) Laguntza hauez gainera, hala badagokie, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak izapidetu edo kudeatzen dituen gainerako diru laguntzak ere eskura ditzakete emakumeek (Gizarte larrialdietarako laguntzak, eta Lan Partekatuaren Planeko laguntzak).*